



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

ALDI BATERAKO KONTRATAZIO ZERRENDAK

49. buletina (2008ko ekainaren 18an argitaratua)

- **Laburpena:**
 1. **Erakusketak muntatzen espezializatutako teknikari lanpostu bat aldi baterako betetzea**
- **Zehaztapenak:**
 1. **Erakusketak muntatzen espezializatutako teknikari lanpostu bat aldi baterako betetzea**
 - Kultura Sailean (Montehermoso kulturunea) **ERAKUSKETAK MUNTATZEN ESPEZIALIZATUTAKO TEKNIKARI** lanpostu bat aldi baterako betetzeko kontratazioa egin beharra dago.
 - **Nahitaez bete beharreko baldintzak:**
 - Goi mailako lanbide heziketa arlo hauetakoren batean: Komunikazio, Irudi eta Soinua, Elektrizitate eta Elektronika, Eraikuntza eta Obra Zibila, Fabrikazio Mekanikoa edo Egurra eta Altzariak nahiz baliokideak.
 - **Balioetsiko direnak:**
 - Arte garaikideko erakusketak muntatzen, obrak ikuskatzen eta gremioak koordinatzen esperientzia izatea.
 - Ingelesa eta Euskara jakitea.
 - **Kontratu mota:** Programa-kontratua. **Iraupena:** zehaztugabea. **Lanaldi mota eta ordutegia:** Lanaldi jarraia eta / edo zatitua, muntatze zein mugimendu gutxiko aldietara egokituko da. **Hileko soldata gordina:** 2.043,82 euro.
 - **Lanpostuko zereginak:**
 - Jasotako erakusketa proposamenen muntaketa diseinatzea, komisarioaren gainbegiratzepan eta Montehermoso kulturuneko arduradunaren aginduetara egokituz.
 - Proiektua gauzatzeko beharrezko diren ekintzak planifikatzea.
 - Muntaketa egiteko behar diren material zein baliabideen zerrenda egitea.
 - Muntatzeko ekoizpenaren diseinua.
 - Muntaketa aurreikusitako epearen barruan gauzatu ahal izateko beharrezko diren azpiegiturak, giza taldeak eta baliabide ekonomikoak koordinatzea eta gainbegiratzea.
 - Enpresa eta lantaldeen beharrak planifikatzea, urtez urte.
 - Gauzatutako muntaketen helburuak eta emaitzak ebaluatzea.
 - **Izangaien onarpena** LANGAIren laguntzarekin egingo da ezarritako irizpideei jarraiki. Hortaz, interesaturik bazaude, erakunde horren jendaurreko bulegoetakoren batera jo beharko duzu, eta **162008008339** zenbakiko hautatze prozesuan sar zaitzatela eskatu, **2008ko uztailaren 4ra** arte (egun hori barne).

- **Hautaketa prozesuak** bi zati izango ditu:

Lehenengo, betebeharreko baldintzak dituzten izangaien artean aurre-hautaketa egingo da; "balioetsiko direnak" atalean jasotzen diren merezimenduak kontuan hartuta, 5 hoberenak aukeratuko dira.

Prozesuaren bigarren zatian aurre-hautaketan aukeratutakoek lanpostuaren zereginen inguruko hautatze proba bat edo gehiago egingo dute.

Hautaketa proba egiteko **onartu eta bazter utzitako pertsonen** zerrendari buruzko informazioa **2008ko uztailaren 7ko** 12:00etatik aurrera emango da, 010 telefonoan (945 161100 Gasteiztik kanpotik deituz gero); orobat argitaratuko da zerrenda udaletxeko iragarki taulan (Espainia plaza) nahiz udalaren web orrian. <http://www.vitoria-gasteiz.org>

- Informazio gehiago edo interneten bidez izena eman nahi izanez gero, www.lanbide.net orrira jo, bilatzailearen erreferentzia sartuta zuzenean eramango zaitu eskaintzara, eta hor ezartzen den prozedurari jarraitu beharko diozu.

- Funtzio Publikoaren zinegotzi ordezkariaren 2005eko maiatzaren 10eko ebazpenaren bidez onetsi zen "Aldi baterako hautaketa prozesuen prozedura"rekin bat burutuko da deialdi hau. Udalaren web orrian ikus daiteke hori, <http://www.vitoria-gasteiz.org>

- **Argibideetarako telefonoa: 010 (Gasteiztik kanpotik deituz gero: 945 16 11 00)**
- **Udalaren web-orria: <http://www.vitoria-gasteiz.org>**
- **Aurretik argitaratutako beste agiri batzuk:**

Aldi Baterako Kontratazio Zerrendak Kudeatzeko Araudia.

Buletin honen argitalpenari buruzko informazioa eskatzeko nahiz aurrerantzean gehiago ez jasotzeko aski duzu ondoko helbide elektronikora idaztea (izen-deiturak eta nortasun-agiriaren zenbakia adierazi):

seleccpersonal02@vitoria-gasteiz.org

seleccpersonal03@vitoria-gasteiz.org

**HAUTAKETA ETA GARAPEN ATALA
FUNTZIO PUBLIKOAREN SAILA**